



*Iglesia de San Salvador
de Sangüesa. Detalle.*

INDICE

Bortuak.....	66
Errozabal Iruñeko Erresumaren sorreran (778 eta 824)	66
Nafar narrazioak aldatzen, euskalfobiaren lorratzean	68
Edizioa Nafarroa zatituan.....	68
Bortuak eta edizioa Nafarroan (XVII-XVIII. mendeak)	70
Orbaizeta Nafarroako Erresumaren amaieran.....	71
Bibliografia	73
Bibliografia osagarria.....	73

ORREAGA, ORBAIZETA, AEZKOA. NAFARROAKO ERRESUMAREN BIDEGURUTZE¹

Iñaki Lopez de Luzuriaga
wikilaria (Iñaki LL), itzultzailea, historialaria

Artikulu honetan, azalduko da Orbaizetan 2023ko urrian egin zen literatur ekitaldian irakurri txostena, moldaketa txiki batzuez emendatua. Irakurketa publiko hartan, Margarita Nafarroako erreginaren (1492-1549) idazlan ezagunenaren *Heptamerona* euskarazko itzulpeneko pasarteak irakurri ziren. Bada, artikulu honen xedea da irakurketa hori 824ko Orreagako Guduaren eta Iruñeko Erresumaren sorreraren 1.200. urteurrenean kokatzea, arreta berezia jarriz Aezkoako eta nafar identitate kolektibo eta historikoko zenbait mugarriri, literatura, narrazio, edizio eta hizkuntza arlokoak. Nafarroa bezala, Aezkoa astindu duten hainbat gertaera historiko eta kultural hertsagarriren kontrako aldean, nabarmenduko dira bizi izan den pizkunde kulturala eta memoria historikoaren rola.

Este artículo expone la memoria leída en el acto literario celebrado en octubre de 2023 en Orbaizeta, añadiéndose en la edición pequeñas modificaciones. En esta lectura pública, se leyeron fragmentos de la traducción al euskera de la obra más conocida de la reina Margarita de Navarra (1492-1549), Heptamerona. El propósito de este artículo es inscribir esa lectura en el 1.200 aniversario de la segunda batalla de Roncesvalles y la creación del reino de Pamplona en 824, poniendo asimismo especial atención a diversos hitos del Valle de Aezkoa, así como de la identidad colectiva e histórica navarra en materia de lengua, literatura, relatos y edición. En contraposición a capítulos históricos y culturales opresivos que han atenazado Aezkoa así como Navarra, se ponen de relieve el papel de la memoria histórica actual y el renacimiento cultural vivido.

1 Txosten honen jatorrizko bertsioa Margarita Nafarroako erreginaren *Heptamerona* idazlanaren irakurraldian aurkeztu zen, 2023ko urriaren 22an egina Orbaizetan.

Orbaizeta, Itzaltzu, eta inguruak askok Benito Lertxundiren bidez ezagutu ditugu, *Zuberoa* eta *Altabizkar/Itzaltzuko Bardoari* diska bikainetan. 1970eko hamarkada hasieran, nekez ezagutzen zen ingurune honetan nolako gertaera garrantzitsuak izan ziren Euskal Herriaren historian, eta ez soilik, ezaguna den bezala, Donejakue Bideari loturik, mendetan Penintsula iparraldeko erregeek babestu errepeidea.



Ola de Orbaizeta (josemi merino torrens, WM Commons, CC-BY-SA)

Bortuak

Dударик gabe, Ibañeta pasagune estrategikoa izan da urtetan, Baskoniaren mendetako zubi. *Ab Asturica Burdigalam* (“Iter XXXIV”) galtzara nagusi eta azpiegitura garrantzitsuen mugarri. Mendatean gora kokatzen zen *Summum Pirineum* (Urkulu?) eta, haren oinean, Auritzeko *Iturissa* edo Iturriza, idazle latino eta greziar klasikoek aipatu kokapenak. Itxura guztien arabera, azken hori Zaldua da, egun Aranzadik ikertzen duen aztarnategia. Mendatea, bada, Baskoniako herrien harremanetarako aspaldiko bidea da, dudarik gabe, Pirinioez hegoaldearen eta iparraldearen artekoa.

Zalantzazkoa da euskaldunok Pirinioetarako izendapenik izan dugunik. Hor dago Auñamendi izendapena, egun mendi gailur baten izen geratua, *Annie* frantsestua, egungo Euskal Herriaren mugan. Badakigu, ordea, mendilerroa ez dela izan banalerroa, elkarren zubi baizik: Bortuak, Bortuak. Ibarreko herritarrak, aetzak, Donibane Garazira joaten ziren merkatura. Bazkalekuen erabilera komunak partzuergoak eta faze-riak ekarri zituen ibarren artean, herri lurren erabilerarako hitzarmenak.

Errozabal Iruñeko Erresumaren sorreran (778 eta 824)

Haatik, herri eta potentzia arrotzek ere pasabide izan zuten Ibañeta eta Aezkoa, bertako herritar baskoien zorigaiztorako askotan. 778an,

zuzenean Bordele eta Astorga arteko galtzada hartuz, Karlomagnok Baskonia zeharkatu zuen Iruñeraino eta, gero, Zaragozaraino. Ebroko hiriburuan, misioaren porrota ezagutu zuen, baina osorik ziren haren bi legioak (20.000 pertsona inguru), eta ez zuen parada galdu baskoi bihurriak zigortzeko, Iruñea kiskaliz.

Hamalau kilometrotik gorako espediziotzar karolingio horrek, ordea, baskoiak zituen zain *Cize* delako edo Garaziko Bortuetan, Errozabalen. Karolingioek kolpe latza jaso zuten, Bortuez hegoaldeko eta iparraldeko indar baskoien sinergiaz, segur aski. Garai honetan, lehendabiziko aldiz aipatzen dira *navarri* direlakoak, baskoi askeak, Akitaniako Gerra amaierako hitzarmenekin (766-769) bat egin ez zutenak, Bortuez hegoaldekoak, Iruñea hiriburu zutela. *Vita Karoli Magni* karolingioak adierazi zuenez, Ebroren iturburuak *navarri* edo nafarren lurraldean kokatzen ziren IX. mende horretan. Hala izanik ere, Iruñea zuten erdigune.

Nekez pentsatuko zuen Eginardo kronika horren autore frankoak baieztapen geografiko hori eztabaida eta narrazio politiko antagonikoen sorburu bihur zitekeenik, baina egun, artean ere, hizpidea jartzen du eztabaida akademikoetan, euskalduntze berantiarra eta eratorritako beste kalapita batzuk direla eta ez direla. Tamalez, Nafarroa artean sortu gabe zegoela, mendeak falta ziren euskaldunek beren lekukotza agirietan idatziz uzten hasi arte, are gehiago euskaraz. Garai honetako agiriei, beraz, kanpoko etsaien baieztapenak eta irudiak erakusten dituzte.

Frankiatik, alegia, Loira iparraldetik zetozen franko karolingioek Bortuez hegoaldeko baskoi horiek otzandu nahi izan zituzten 812an, berriz ere ("gauzak bere onera ekarri"). Luis *Errukitsua* Karlomagnoren semea berriz etorri zen Iruñera. Nafarrak ez zeuden prest karolingioen zergapeko izateko, ezta Ebroko abentura inperialetarako tropak eskaintzeko ere. Iruñetik igaro ondoren, Luisen espedizioa baskoien eraso baten beldurrez zen, eta gatibu hartu zituen haur eta emazte euskaldunak. Haiek giza ezkutu gisa erabiliz, euskaldunen eraso ebitatu ahal izan zuten, eta Garaziko Bortuak onik zeharkatu.

Besterik izan ziren gauzak 824an: espedizio karolingio bat Orreagan barrena sartu zen nafarrei eraso egitera. Tristeki, Baskoniako dukea espedizio horren buruetako bat zen. Baskoi militarizatuek kolpe latza eman zieten berriz karolingioei, eta garaituak izan ziren. Azeari (edo Aznar) Bortuez iparraldeko euskalduna eta Eblo buruzagiak preso hartu zituzten, baina Azeari aske utzi zuten, beren familiakoa zelako.

824ko Orreagako (Erozabalgo) Guuduak, 778koak ez bezala, euskaldun askeen independentzia ekarri zuen, oraingoan egitura politiko autonomo batean antolatuak: Iruñeko Erresuma. VII-VIII. mende gehienera ez bezala, buruzagiek euskal izenak erabiltzen hasi ziren, kontzientzia po-

litiko sendoago baten adierazle: Eneko, Gartzia, Azeari, besteak beste. Karolingioen garaitik, erromatartasunaren aldarrikapenak ez ziren jada deus eskaintzeko baskoiei, erromatartasuna latinitate baztertzaile bat bihurtzen ari zen, Erromako Eliza eta Ordena Beneditarra lagun. Arturo Kanpionek horren lekukotza fikzionatu gordina utzi zigun 1917an *Itzaltzuko bardoa* kontakizun laburrean, hasten ari zen kolonizazio baten lekuko.

Nafar narrazioak aldatzen, euskalfobiaren lorratzean

XI. mendean, Orreaga ez zen artean ere mugarri garrantzitsua, baina errege nafarrek bide hori lehenetsi zuten Europatik zetozen pelegin eta kolonizatzaile frankoentzat. Bidea sustatzeko, Orreagan ospitale bat eta kolegiata eraiki zuten. *Franko* direlako horiek ez ziren jada VIII. mendeko frankoak, okzitaniarrak baizik, zergatik aske. Hala ere, Donajakue Bideko franko karolingioen tradizioetik edan zuten, XI-XII. mendeetan narrazio epikoak sortzeko orduan.

778ko Orreaga edo Errozabalgo Guduko garaileak ez ziren jada baskoiak edo euskaldunak, XI-XII. mendeko etsai berriak baizik: musulmanak. Egitandi kanta horretan, gainera, galtzaileak aintzaz jantzi-ta ateratzen dira, heroi, epopeia baten protagonista, Donejakueko Bidea erakusteko propagandaren agente bihurturik. Ahozko narrazioek errealtatearen ikuskera moldatzen zuten garaian, Eliza gero eta indartsuagoak eta ordena erlijioso eta erlijioso-militarrek zabaldutako kontakizunak ahozko tradizioan errotuz joan ziren. Elizaren zabalkunde narratibo horretan, Orreagako elizgizonek zeresan handia izan zuten, dudarik gabe. Nafarroako Foru Zaharreko hitzaurrearen ildo narratiboak (1237) ez du euskal tradizioetik edaten. Rodrigo Ximenitz Arradakoa garestar eta Tolledoko apezpikuaren eskua? Horixe ikusi izan duten batzuek. Ordu arte ahozkoak ziren nafarren hitzarmen eta ohiturak, paperera pasa ziren, zehazki pergaminora, foru bilakaturik.

Nafarroako Erresuman, papera XIV. mende hasieran hasi zen zabaltzen. Era horretan, aiseago eta ardurago ekoitzi ziren agiri administratiboak, eta burokratizazioa erraztu. Literatura lanak ugaltu ziren, eta lehen euskal idatzizko idazkiak agertu: Iruñeko goi-funtzionarioen arteko gutunak, eta Iruñeko katedraleko otoitz bat.

Edizioa Nafarroa zatituan

Foix leinuko nafar errege-erreginak ez ziren ausartu Leskarretik Bortuez hegoaldera pasa eta Iruñetik agintzera 1494 arte, Fernando Aragoiko errege espainiarrak sustatzen zituen beaumontarren erasoaren beldurrez. Hitzarmen batera helduta, Biarnotik abiatu eta segur aski Orreagatik igaroko ziren, eta Irulegitik Iruñera jaitsi. Katalina Foixkoa erregina altxa

zuten, baita haren senar Joanes ere, nafar herriari zin egin eta, trukean, nafar herriak (agintariak, ordezkariak) koroari zin egin ondoren. Iruindarrek bozkarioz ospatu zuten hiriburuko karriketan, antzerkia eta poesia ez ziren falta izan. Orduko bertso bat ere gorde da, euskaraz:

“Labrit eta Errege
aita seme dirade
kondestable jauna
ar bizate anaie”

Urte bertsuetan, Nafarroako koroak Euskal Herriko lehendabiziko inprimategia erakarri zuen Iruñera, Arnaut Gilen Brocarkoa, edo Brocario. Iruñean urte batzuk eman ondoren, bere trebezia Gaztelari saldu zion, orduan puzten ari zen potentzia armatu berria: Gaztelako Erresuma. Brocarkoak ikasle izan zuen Miguel Egia lizarratarra. Iruñea edizioaren Euskal Herriko hiriburu bihurtu zen, eta XVI. mende amaieratik Iruñeak inprimategia izan zuen iraunkorki.

Ordurako, berriz, Nafarroako Erresuma independentea desagertua zen Bortuez hegalderra, 1512ko Fernando erregearen inbasio aragoiar-gaztelarraren ondoren. 1521eko Henrike II.a nafar erregearen ahaleginak huts egin zuen, eta Garazi eskualdea gatazka armatu gogorren eta zigor latzen erdigune bihurtu zen. Frontearen erretagordian, 1525ean lehen errepresio agerraldiak izan ziren, Orreagan hainbat pertsona sutan errez. Herritarren kontrako *lesa maiestate* delituak ugaltu ziren, eta nabarmenki *sorginkeria* kasuak, jazarpen horren buru zebilela Nafarroako Errege Kontseiluko Balantza lizentziatua.



XVI. mendeko Bortuetako andre euskaldunei buruzko marrazkiak (Christoph Weiditzek eginak)

Bertakoen betiko harreman naturalak oztopatzen zituen fronte lerro gotor bat ezarri zen Bortuetan. Nafarroa Behereko frontearen arduradun igorri zuten Balantza, 1525eko sorgin ehiza amaitu berritan. Kontrako aldean, Donapaleun eratu Nafarroako Erresuma – Biarno independentean, erreforma erlijiosoa zabaltzen ari zen. Moldiztegiaren zabalkunde indarraren epelean, nafar erreformatuek beren ideiak zabaltu eta sustatu zituzten, baita beren estatu hizkuntza(k) ere.

Erromaren dogmatismoari ihes egiten zion giro horretan loratu zen Margarita Angulemakoren *Heptameron*a. Margarita Nafarroako erregina ezkontidea zen, Henrike II. arekin ezkondu ondoren, baita Frantziako erregearen arreba ere. Idazle trebea izateaz gain, diplomazialari bikaina izan zen, erregearen ordeztuz hura espainiarrek kartzelatu zutenean (Paviako Guduaren ondoren) eta, une zailetan, espainiarrekin hitzarmen bat josiz. Frantses erregearekin deus irabaztekorik ez zutela ikusirik, errege-erreginak Nérac-eko beren gortera lerratzen hasi ziren, eta Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*-ren argitalpena babestu.

Bortuak eta edizioa Nafarroan (XVII-XVIII. mendeak)

Nafarroako Erresuma – Biarno burujabea 1620an amaitu zen, artean Frantziako Koroari loturik Nafarroa Behereak ahalmen nahiko handiak gorde bazituen ere, 1743 arte. Haatik, Nafarroa Beherea hori ez zen moldiztegi ofizialik izatera heldu, eta Donapaleuko bere diru edo txanpon etxea XVII. mende erdialdera galdu zuen, Baionara lekualdatua. Moldiztegiarik gabeko erresuma zaldirik gabeko zalduna zen. Aldiz, Nafarroa Garaian, Nafarroa independentearen errautsetatik, Erresumaren Diputazioa sortu zen. Nafarroako Gorte dinamikoek behar-beharrezkoa zuten moldiztegia beren legedia eta foru agintaritza oinarritu eta zabaltzeko. Bestalde, inprimatzaileen arteko lehia handia zen.

Inprimategietarako, papera behar zen, eta Nafarroa Garaiko inprimategiek bi iturri nagusi zituzten: itsasoa, Donostiatik eta Bilbotik, eta Ibañetako igarobidea. XVIII. mendeko argitalpenetako paper errubriketan gorde denez, batetik, Arku Atlantikotik heltzen zen Ipar Europako papera eta, bestetik, Bigorra, Biarno, Zuberoa eta Nafarroaren beste erdia, Baxenabarre, ziren papera eskuratzeko iturburu nagusiak. Mende berean, bada, Garazin bazen paper errota bat, baina gainera, Eugin beste bat zegoen, Nafarroa Garaian eta, oro har, Hego Euskal Herrian bakarretakoa. XVIII. mendean, Iruñeko inprimategietatik atera ziren euskarazko idazkiak ez ziren gutxi izan. Ez ziren falta izan ere lan historiografiko garrantzitsuak, hala nola *Annales del Reyno de Navarra*, Moret erresumako kronikariak hasia, edo *Castigaciones a la historia del Pe. Juan de Mariana en los puntos que pertenecen a Navarra*, autore berarena. Euskaraz, idazki gehienak gai erlijiosokoak ziren, Jesusen Konpainiak sustatuak. Haatik,

Gaztelako Koroa espainiarrak bai Jesusen Konpainia bai euskaraz inprimatzea 1766-1767an debekatu zituen, Nafarroa Garaiko eliteen zati baten oniritziaraz.

Orbaizeta Nafarroako Erresumaren amaieran

Garai aztoratuak ziren, monarkia handiak sendotzen ari ziren, gerra, luxu eta diru gehiago behar zituzten, eta herriak ordaintzen zuen hori. XVIII. mendeko monarkia ilustratuek areagotu egin zuten zentralizazioa eta estatuaren uniformizazioa eta, aldi berean, elkarren kontrako gerra inperialistak. Haatik, Bortuez iparraldera, Nafarroaren kontrako azken erasoak ez zuen errege batek jo, Frantziako Nazio Biltzarrak bai zik, 1789ko abuztuaren 4an *pribilegioak* deseginez. Berdindu egin ziren nobleen neurri arbitrarioak eta herrien askatasunak eta araubideak, eta nahitaezko soldaduska ezarri. 1792an jada Versaillesen egoitza zuen erregeak galdu egin zuen “Frantziako eta Nafarroako errege” titulua, trukean “frantsesen errege” bihurtuz. Erregeak luze gabe galdu zuen burua ere.

Gerra piztu zen Espainiar Monarkiarekin, eta hor Orbaizetak eta Aezkoak nahi gabeko protagonismoa izan zuten. 1784tik Espainiar Monarkia arma fabrika bat muntatu nahi izan zuen Orbaizetan, eskualdeko urari eta oihanei etekina ateratzeko. Bertan, bazen burdinola bat 1432tik gutxienez, Nafarroako Zuria erreginak hala baimendurik. Bada, 1784. urte horretan, espainiar koroak lurren eta oihanen jabearekin, Aezkoa Ibarreko Batzarrarekin, negoziatu zuen arma fabrika egiteko. Arma fabrika 1788an martxan jarri zen, eta 1793an Konbentzioaren Gerra piztu zen. Ordurako desegina zen Nafarroako Erresuma Ipar Euskal Herrian, eta frantses iraultzaileak kilometro batzuetara zeuden.

Donibane Garazitik, Orhitik eta Larrañetik, frantses iraultzaileak heldu ziren, haietako asko euskaldunak, gogo txarrez batzuk, kausarekin sinetsita beste batzuk. Frantses iraultzaileetara lerratu ziren, konparazio baterako, Baigorriko Harizperen “euskaldun xazurrak” (ehiztariak) deitu batailoiak. Orbaizetako espainiar soldaduak, 2.400, ihesi joan ziren frantses iraultzaileen tamaina eta indarra ikusita. Nolanahi ere, Aezkoari galtzea suertatu zitzaion. Hala armada frantsesek nola espainiarrek herri ugari kiskali zituzten, tartean zela Auritz. Frantsesek Orbaizetako arma fabrika suntsitu zuten, eta egun haren aztarnak ditugu ikusgai, gertaera latz horien oroigarri.

Aetzek, ordea, 1784ko hitzarmenean jaso zuten lehen kolpe gogorra. Espainiar Koroarekin sinatu itun horretan desoreka nabarmena zen. Hitzarmen hori koroa arrotz horren hizkuntzan sinatu zen, eta negoziatioetara bildutako ibarreko ordezkariak larrutik ordaindu zuten borondate ona eta beren naziotasuna, Aezkoa ibarra Orbaizetako errege arma fabri-

karen morrontzan eta mende jarritz, 1790ean ibarreko ordezkariak salatu zuten. Horren arrazoia, berriz:

“el inocente candor de los que asistieron al otorgamiento, su ignorancia o poca instrucción del castellano”

Harrezkero, ibarrak bi mende eman behar izan zituen espainiar errege erakundearen uztarpean, Francoren diktadura amaitu arte. Izan ere, Bortuez hegoaldeko Nafarroako Erresumako eliteak nafar herritarren beren kasa eta bermerik gabe uzten ari ziren, epaiketetan bezala Espainiar Koroarekiko harremanetan. 1833rako, Nafarroako Erresuma bera kolokan zen, Lehen Karlistaldiaren atarian. 1841erako, Erresuma espainiar gobernuaren armadak okupatua zela, Foruak Eraldatzeko Legea etorri zen eta, harekin batera, Nafarroako Erresumaren azkena, Bortuez hegoaldera. Xamarrek argi kontatu digunez, Espainiako Gerra Zibilaren gerraosteko arbitrarietate eta umiliazioek, okupazioak, eskola nazionalak eta erdal prediku nazional-katolikoak ekarri zuten bertakoen hizkuntza-aren azkena.

Zorionez, beste armada xumeago batek, kulturalak, tartean Bortuez bi aldeetako herritarren lankidetzak, printza berriak ekarri zituzten ibarrari, jada 1936ko estatu kolpearen aurretik: horretan, kimen handiko pertsonak aritu ziren, Nafarroako Diputazioaren babespean. Hala ere, pairatutako alienazioari aurre egiteko eta bertako euskal nortasuna berreskuratzeko borroka 1970eko hamarkadan hasi zen, batez ere. Azkenetako ekimen bat Nafarroako Erresumaren sorrera zelaitu zuten baskoien omenezko oroitarria inauguratzea izan da, Luzaiden; aldi berean, inbaditzaileak oroitzen dituen Ibañetako monumentuak ezagutzen du jada herritarren artean pizten duen gaitzespena. Aurten, badugu zer ospatu: 1200 urte, 824ko Orreagako Gudutik eta Iruñeko Erresumaren sorreratik.

Bibliografia

- Azurmendi, Joxe (2020). *Pentsamenduaren historia Euskal Herrian*. Andoain, Leioa: Jakin, UPV/EHU
- “Gartxot”. *Auñamendi Entziklopedia*.
 <<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/gartxot/ar-76756/>>
 [Kontsulta: 2024-07-28]
- Goyhenetche, Manex (2012). *Histoire générale du Pays Basque (Tome I)*, Elkarlanean, Donostia.
- Irujo, Xabier (2019). 778. *La batalla de Errozabal. De la Crónica al Cantar*. Edición Vasca Ekin Argitaletxea, Buenos Aires.
- “Konbentzioaren Gerra Euskal Herrian”. *Euskarazko Wikipedia*.
 <https://eu.wikipedia.org/wiki/Konbentzioaren_Gerra_Euskal_Herrian> [Kontsulta: 2024-04-08]
- Lopez de Luzuriaga Martinez, Iñaki (2016). *Euskaldunak eta karolingiar iraultza. Akitania eta Baskonian barrena*. UEU.
- Lopez de Luzuriaga Martinez, Iñaki (2023). “Edizioa XVIII. mendeko Euskal Herrian: datu kuantitatiboak, joerak eta inprimategien bilakaera Wikidataren argitan”. *Uztaro*, 126, 35-60. <<https://www.uztaro.eus/artikulua/176/edizioa-xviii-mendeko-euskal-herrian-datu-kuantitatiboak-joerak-eta-inprimategien-bilakaera-wikidataren-argitan/2175>> [Kontsulta: 2023-11-26].
- Lopez de Luzuriaga, Iñaki (2024). “XV-XVII. mendeetako Euskal Herriko edizioa ikertzeko materialak”. *Egan*, 3/4, 81-97.
 <<https://www.rsba.org/ojs/index.php/egan/article/view/5328>>
 [Kontsulta: 2024-02-17]
- “Nafarroako sorgin ehiza (1525)”. *Euskarazko Wikipedia*.
 <[https://eu.wikipedia.org/wiki/Nafarroako_sorgin_ehiza_\(1525\)](https://eu.wikipedia.org/wiki/Nafarroako_sorgin_ehiza_(1525))>
 [Kontsulta: 2024-03-26]
- Orella Unzué, José Luis (2014). *Historia del pueblo vasco en la Edad Antigua y Media*. Nabarralde, San Sebastián.
- Xamar (2018). *Etxera bidean*. Pamiela.
- Bibliografia osagarria
- Etxeberria, Ixabel (2023). *Margarita. Nafarroako erregina (1492-1549)*, Euskaltzaindia, Bilbo, 42.

Bibliografia osagarria

- Etxeberria, Ixabel (2023). *Margarita. Nafarroako erregina (1492-1549)*, Euskaltzaindia, Bilbo, 42.

